

Entre nature et culture, les animaux dans le patrimoine basque

**NATURA ETA KULTURAREN ARTEAN,
ANIMALIAK EUSKAL ONDAREAN**

Erakusketaren itzulpen liburuxka

Natura-Historia Museoko eta Euskal Museoko bildumak aurkeztuz, “Natura eta kulturaren artean, animaliak euskal ondarean » erakusketak natura eta berezikiago animaliak euskal kultur ondarearentzat inspirazio iturri izan direla erakusten du.

Aurkibidea

Animaliak euskal ondarean	p.3
Bestak eta kondairak	p.3
Animaliak, gaizkiaren ikur	p.5
Laborantza eta abeltzaintza	p.6
Bidaiariak	p.6

Animaliak euskal ondarean

Euskal ondareak euskal kultura eta naturaren arteko elkarrenganako lotura indartsua agerrarazten du. Euskal kultura, bere garapen ingurumenetik hartu erreferentziez betea da, itsaso ibar eta mendien artean. Orotan berdatua den natura, euskal nortasunaren osagaietarik bat da, giza aktibitateen eraginez moldatua izan baita bera ere. Alabaina, zer bilaka lirateke Euskal Herriko muino berdeak laborantza eta hazkuntzarik gabe?

Animaliak

Euskal Herrian gandi ibiliz, animalien irudikapenen ikusteko aukerak anitz dira. Kultura eta naturaren artean, bizidun horiek agertzen dira, kantuetan eta dantzetan, zizelkadura edo marrazki gisan etxeetako atalburuetan, eraikinetan, oroitarrietan, armarrietan... Legenda eta mito objektuak diren animaliei lotu irudiak joriak dira ere: han sugearen itxura duen jainua, hor bizia edo heriotzaren ikurra den animalia.

Animaliei lotu irudiak baino haratago, tradiziozko ohitura batzuk, besteak beste elikagaien inguruan, Euskal Herriko jarduera ekonomiko enblematikoak sortu dituzte: ardi gasna edo zerri ekoizpena, hala nola xingarra...



Usaian Euskal Herrian, zerriak mendiko oihanetan ziren hazten. XIX. mendean gertatu oihan azaleraren ttipitzearen ondorioz, Euskal Herriko zerri zuri-beltza arraza gainbehera joan da. 1980 urteetan desagertzetik salbatua, tokiko arraza horrek salbamena "Euskal Zerria" sailari zor dio, gaur egun hirurogeita hamar bat hazle bilduz.

© Kintoa Euskal Zerria saila

Bestak eta kondairak

Euskal Herrian besta eta kondaira ugari daude animaliekin lotuak, oraino gehiago ere etxe-animaliekin. Kondaira eta sinesmen batzuk biziki eremu mugatukoak izan daitezke, leku mugatu batean erabiliak edo lurralde guzian egon daitezke, Europan diren elementu batzuk berrerabiliz ere batzuetan.

Zaldia

Zaldia euskal ondareko sail anitzetan dago (altzariak, jokoak, ...) bereziki Xiberoko maskarada bezalako besta zenbaitetan. Izan ere, kantu eta dantzazko besta horretan dugu zamaltzain saihestezina.

Zamaltzain godalet dantzan ari,
Gabriel Roby, 1914,
Oihal gaineko olio margolana,
Euskal Museoa
© Alain Arnold



Hartza

Europar nasaiki ehizatua Erdi Aroaz geroztik, hartza XX. mendearen erdi irian euskal mendietarik desagertu arte. Haren inguruan ziren sinesmenak ahantziak dira geroztik. Lehenagokoen erranetarik, gizakia hartatik letorke, animalia mitikoa, ipuin, kantu, otoitz andana zabalaren inspirazioa dena, egungo egunean gehienak galduak direnak. Baina 70. hamarkadaz geroztik, hartza berriz agertu da euskal kulturaren. Berpiztearen, udaberriaren eta emankortasunaren ikurra, ihauterietan ospatzen da, Uztaritzeko Hartzaro festibalean adibidez.



Hartz arrea, *Ursus arctos*, Asian Ipar Amerika eta Europar dagoena.

© Christian König

Kukua

Hartzaren gisan, udaberria iragartzen duen animalia da kukua. Martxo hondarrean Afrika hegotik sartuz, ipar emisferiora migratzen du sasoi ederrean populatzeko. Errazki ezagut daitezkeen kantua erranzahar eta sinesmen anitzen sorburua da, Europa guzian aurki daitezke :

“Kukuan kuku eta dirua sakelan, aberats urte guzian”.

Euskal Herriko haran zenbaitetan oraindik “Kukuaren upela”-ren usadioa dago: kukuaren lehen kantua entzun orduko sagardo upelak zilatzen dira.

Kuku grisa, *Cuculus canorus*, migrazioetik itzultzean.

© Michael Lane - Stocklib



Erleak



Erle ezkoaren gehiena erabiltzen ohi zen “ezkoak” izeneko dolu-xirioak egiteko. Holaxe erleek leku berezia zeukaten ehorketa erritoetan. Etxeko jauna edo anderea hiltzen zireneko, etxeko erlategira hurbiltzean gertakariaren berri ematen zitzairen erleei, ezko gehiago egin zezaten. Lekuen arabera, erranbide ezberdinak erabiltzen ziren.

Ezkoa erretzen ari

© Claude Iabat

Akerra



Animalia honen inguruan bi motatako sinesmenak baziren: zenbait aldiz akerra animalia sanotzat jotzen zuten, hazkuntzako kabalengan eragin onuragarria zuena eta sendatzeko ahalak zituzkeena. Egungo egunean, hainbat artaldetan ardi beltzen agerpena sinesmen honen aztarna liteke.

Ardi beltzaren presentzia artaldean

© Claude Labat

Animaliak, gaizkiaren ikur

Abere batzuk sinesmen bikoitzaren gaiak dira batzuetan aldi berean ongia eta gaizkiari lotuz. Apoa, sugea eta akerra dira adibide hobereak.

Akerra

Euskal mitologian, sinesmen anitzen gaia da akerra, ongiari eta gaizkiari batean lotuz. Irudi adierazgarrienetarikoak Akerbeltz dugu, aker beltz baten itxura hartzen duena, euskal izenak erakusten duen bezala. Anitzetan sorginekin irudikatzen dute zeremonia baten erdian, akelarrea deitua.

Kristautasunarekin batean eta XVI. eta XVIII. mendeetako sorginkeria auziekin, animalia likits eta satanikoaren irudia ematen zioten.

Akelarrearen orkestra
1938, José Gonzales de la Peña,
ohol gaineko olioa margolana
Euskal Museoa.
© Alain Arnold



Apoa



Apoen itxurak eta beren gaueko usaiek anitzetan haien kaltetan jokatu zuten. Komunzki uderrez estalia, beren larru latzak ezaugarri haluzinagarriekilako produktuak ditu batzuetan. Sorginkeriari eta zorte gaiztoei lotuak dira, errito batzuen objektuak izanez. Irudikapen tradizionalan, sorginekin dantzan itxuratuak ziren.

Apo arrunta, *bufo bufo*

© Pavel Mikoska – Stoclib

Euskal Herriko nortasunari hertsiki lotua, nagusiki haranez, muinoez eta mendiez osatu lurralde honen paisaiak eta ekosistemak azkarki egituratu ditu laborantzak. Aktibitate horri lotu ekintzek, ahalbidetu zuten inguruneak irekirik atxikitzea, larre eta pentzeen artean, hauen hestea eragin zezakeen oihanen hedapena trabatuz. Mendeetan zehar iraun zuten lege arauen iturburua da.



Duela milurte batzuk erabilia, euskal kulturaren zutabe bat da laborantza, hazle eta artzainen bizitegiekin, haragi eta gasna ekoizpenarekin eta transhumantziarekin batean ... Etxeko animalia belarjaleen agerpen azkar honek natura-ondare berezi baten izatea dakar.

Pottok © Claude labat

Belarjaleetatik ...

Biziki azkarra, fauna hori nagusiki ardiez osatua da (animalia transumatzailen %90tik %95ra nonbait han). Behiak eta zaldiak gehitzen zaizkie, muinoetan eta mendietan diren betiko pottokekin.

... hiliki jaleetara

Hauen presentziak beste espezie batzuen finkatzea ekarri du. Animalia hiljale batzuek, saiak, sai zuriak, ugartzak edo bele handiak bezalakoek, belarjale horien hilikiak janez, ezinbesteko larrutzaile eginkizuna betetzen dute.

Animalia gorozjaleei* doakienez, belarjaleen mokordoen birziklatzea ahalbidetzen dute beren eraginez. Denek dituzte hola alhaguneak garbituko.

* *koprofagoa* = *abereen gorozjalea*



Sai zuria © Grégoire Trunet


Bidaiariak

Euskal Herria aldi berean pasabide lurraldea da, bidaiarekin harremanetan sartuz euskal kultura aberasteko ahala eskainiz, eta lan egiteko edo zeruertz berrien aurkitzeko itsasoen zeharkatzeko prest ziren migratzaile lurraldea da ere bai.

Balea eta bakailaotik ...

Historiak atxikitzen du euskaldunek Atlantikoa zeharkatu zutela bakailaoaren arrantzatzerara, Eskozian lehenik eta gero Ternuaren inguruan, XV. eta XIX. mendeen artean. Gauza bera egin zuten balea

ehizarentzat, XIV. mendetik (Irlandaren inguruan), gero XVI. mendetik XVIII. menderaino Noruegako uretan eta Ternua eta San Laurendi ibaiaren artean.



Biarritzeko armarrria, biek
balea bana daukatela

Balearen ehiza teknika ezberdinak sortu baitzituzten eta geroan lehiakide bilakatuko zitzaizkien herbeheretarrek eta ingelesak moldatu zituztelako, European sail horretan hoberentzat jotzen ziren orduan euskaldunak. Balea ehiza mende horiek aztarna handiak utzi zituzten beraz euskal kulturari.

Kostaldekoko hainbat herrietako armarrietan eta zigilutan (Biarritz, Getaria, Hendaia,...) zetazeo horiek ageri dira, balea-historiaren lekukotasuna ekarriz.

...orein-altezera

Arrantza kanpaina luzeetan, arrantzale euskaldunak lurretan sartzen ziren eta ardura harremanak zituzten amerindiarrekin. Horren lekuko orein-altzea izeneko animalia. XVII. mendean agerturik, Ipar Amerikan bizi den animalia horren frantses izena "original" euskaratik datorkio: oreina. Frantses



eledunek fonetikoki berriz harturik, hitz hori emeki emeki tokiko mintzairan sartu da.

Ipar Amerikan, Errusiako erdian eta Txinako iparraldean izanik, orein-altzea, *Alces americanus*, European eta Errusiako mendebaldeko erdian bizi den altzetik hurbileko oreina da.

© Michal Kadle - Stocklib

Kusku bidaiaria

Nahiz eta euskal itsasbazterrean ez izan, Erromes maskorra euskal ondarean dago, barnealdeko lurretaraino. Hastapenean Konpostelatik etxeratzerakoan erromesek ekarririk, urteak joan ahala erromesaldiaren ikurra bilakatu da. Konpostelara daramaten hainbat bideen juntan izanik, duela mende anitz kusku hori soinean emanik pertsonak milaka iragaiten ikusten ditu Euskal Herriak.

Maskorra pixkanaka sartu da euskal kulturari, bidean nonahi agertzen da.



Bidean, Donibane garazin

Xori migratzaileak

Gizakia ez da bakarria Euskal Herrian barna dabilena. Espezie migratzaile anitzek lurralde honetarik iragaiten diren aire bideak hartzen dituzte. Lertxunak, amiamoko zuria, pagausoak, miru beltzak eta beste hainbeste xori migrazioaren denboran hemendik pasatzen dira. Hegaldian duten kantu ezaguterrazagatik, lertxunak bezalako espezie batzuen pasaia egiazko ezaupide zen jendearentzat bestorduz.



Lertxun arrunta, *Grus grus*, migrazioaren denboran Ansoteko ordokiaren gainetik pasatzen.

© Grégoire Trunet

Ezaugarria baino gehiago, urteak joan ahala espezie bat gutizia iturri bilakatu da: pagausoa, bestela ere urzoa deitua. Urzo ehiza lurralde honetako bizi moduetan barnaki sustraitua den urteko usadioa da.

Erakusketaren arduradun nagusiak

Eric Guiho,
Baionako Natura-Historia Museoaren Zuzendaria

Claude Labat,
Lauburu elkarte.

Erakusketaren eta itzulpen liburuxkaren obratzea

Natura-Historia Museoa - Baionako Herria

Itzulpena

Philippe Jaureguiberry - Ropside,
Euskara Teknikari-Garatzaila - Baionako Herria

Euskararen Erakunde Publikoarekin partaidetzan

